AZKOITIAZPEITIA ANTOLAKUNTZAREN OHAR OFIZIALA

COVID-19a sortzen ari ondorioez eta gure erakundeek emandako aholku eta aginduak jarraituz, Diego Garciaren oroimenezko XXVII. AZKOITIAZPEITIA maratoi erdia, behin behinekoz irailak 19ra atzeratzea erabaki du, AZKOITIAZPEITIA maratoi erdiko zuzendaritzak (RFEA-ko baieztapena bakarrik falta da). Aurreko egunetan adierazi dugun bezala, gaur egun ez dira emanten nazioarteko maratoi erdi bat burutzeko baldintzak. Erantzunkizunez jokatu beharra dugu eta ezin dugu korrikalari, boluntario eta lasterketan lanean dauden pertsonen osasuna arriskuan ipini.

Sentitzen dugu atzerapen honek, izena emanda duten korrikalariengan sortu dezakeen desatsegintasuna eta data horren inguruan dauden lasterketa desberdinei ere. Ala beharrez egin behar izan dugu atzerapena eta gaur egun ikusten dugun irtenbide onena da, 2020ean maratoi erdia egin ahal izateko. Neurri hau ulertuko duzuelakoan gaude.

Esan bezala maratoi erdiko 27. edizioa hala nola lasterketa motzeko 8. Edizioa irailak 19an izango dira. Lasterketa motza, 16:45ean hasiko da eta nazioarteko maratoi erdia 17:00etan.

Izena emanda duzuenok aukera desberdinak izango dituzte:

1- Izen ematea bere horretan mantendu.
2- Izen ematea 2021 ediziorako utzi. 2021ean, martxoaren 20ean izango da lasterketa.
3- Jabetza aldaketa ere egin ahal izango da.
4- Aurtengo kamiseta eta Gym-Sac-a jaso hitzartutako denda batean (maiatzak 4 tik aurrera).

Izen emateak zabalik jarraituko dute, gaur egungo prezioetan, www.rockthesport.com webgunean.

Amaitzeko, aparteko egoera hau normaltasunera lehen bai lehen itzultzea espero dugu. Alde horretatik, erakundeetatik bidaltzen dizkiguten informazioa kontutan hartzea garrantzizkoa da, hartzen diren neurriei kasu egitea eta lasaitasunez baina arduraz jokatzea gomendatzen dugu.

Datozen hilabeetan emango dugu lasterketaren nondik norakoa.

Adeitasunez,

AzkoitiAzpeitia zuzendaritza.